

IRITZIA

Jokin Martinez

ERREPORTAIA

Anorexia:  
jateari uztearen  
kalteak

# BARREN

1997ko maiatzaren 16a  
V. urtea - 194. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

ASTE HONETAN

Julio Ruiz de  
Gordejuela  
endokrinologoa

GEHIGARRIA

Txikibarren

KIROLA

Elgoibartarrak,  
Europako eta  
Espainiako futbol  
txapeldunak

KULTURA

C.D. Elgoibarko  
himnoari omenaldia



## Anorexia: irudiaren diktadura

“Esperantza ezagutzen dudan sendagilerik onena” Alejandro Dumas

# Ferpi

orain



## BERRIAN



S. Bartolome, 38

Tel: 74 43 45



EDURNE BILBAO

## Erditzeari buruz lau hitz

**P**arean tokatu zaidan egoera izanik, lau hitz aipatzeko tentazioa izan dut. Gaur egun, nire ustez, haurrak ekartzen baditugu modu eroso batean egiten dugu: momentu, modu eta baldintza egokienak antolatzen saiatzen gara. Hala ere, badira puntu batzuk, gure eskuetan baino, besteenetan daudela iruditzen zaidanak: osasun zerbitzua, esaterako. Haurdun egotean, mundu honi buruzko nire ezagutza guztiz murriztua izanik, liburuak irakurtzeari ekin diot. Hauetan, erditzerako orduan, zer teknika dauden aipatzen dute, eta momentu eta kondizio hauek aukeratzeko aukera omen dago. Nik, ostera, beti pentsatu izan dut eritetxera joan beharko nuela, bertan ginekologo edo emaginaren aginduak jarraitu, beraiek esaten didatena egin eta kitto.

Baina irakurketa hauetan, etxean erditzea ere normala dela ikusi dut. Liburuak idazle ingeles edo ipar amerikar batzuren izanik, aukera hau estatu hauetan izango dutela pentsatu dut.

Holandako lagun batekin honetaz hitzegiteko aukera ere izan dut. Han arruntena da etxean erditzea, beti ere medikuaren laguntzarekin. Gure amamek ere etxean izaten zituzten haurrak; ikuiluan eduki duenaren berri ere izan dut. Ia-ia inolako laguntzarik gabe emakumeak zerraman zeregin honen zama. Azken urte hauetako egoera guztiz kontrakoa dela iruditzen zait: badirudi medikurik gabe galduak gaudela, beraiek daukatela zeresan guztia eta emakumeak amen egin besterik ez duela.

Benetan horrenbesteraino dago galdua gizatasuna eritetxeetan? Mendaroko eritetxea hurbilena izanda, bertan erditu duten batzuei

galderak egin dizkiet. Gehienak primeran dagoela esan didate, harreta benetan atsegina dela. Nik ere, probatzeko aukera izan ondoren, berdina esan dezaket.

Gauza batzuetan gizatasunik badagoela erakutsi didate. Adibidez, lehenago esan bezala, harreta atsegin hori eta haurra amarekin gelan egotea hasieratik. Gauza asko, ordea, zuk ez badituzu eskatzen, agian ez dizkizute eskaintzen: monitorizazioari lotua ez egotea, erditzeko jarrera (etzanda ez egoeta) eta horrelakoak.

Zentzu honetan, osasun munduan dauden aukeren informazio falta dagoela iruditzen zait. Zuk ez baduzu galdera konkretuak egiten garrantzitsuak diren xehetasun asko ez dizkizute ematen. “Lasai, neska, esku onetan zaude eta, zer nahi duzu jakin, ba? Dena egina ematen dizute”, esaten dute askok. Inozoa sentitzen zara, eta noski, lotsa ematen dizu

gehiago galdetzeak (agian txaplata bat naizela pentsatuko dute eta).

Emakume askorentzat, ezagutza falta hau dela-eta, erditzeari dioten errespetua bildurra bihurtzen da. Beraz, nire ustez, norberaren lasaitasunerako galdetu, informatu eta eskatu beharra dago, azken finean emakumea da erditzen duena eta ez medikua. Beraz, norberaren egoera ezagutzeak, zer egin daitekeen jakiteak seguritatea eta lasaitasuna emango digu.

Nire gusturako, erditzea etxean bezala sentitzea litzateke, eta osasun zerbitzua prest eta erne izatea gauzak okertuz gero. Ikusi dudanarengatik, egoera honetara heltzeko pausoak ematen hasita daude osasun munduan eta honek benetan pozten nau.

“Erditzea etxean bezala sentitzea litzateke, eta osasun zerbitzua prest izatea gauzak okertuz gero”

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.



laburpena: 2000 urte eta gero, jentilak lurraren azalera irtengo dira kixmi, euren gartzelaria, akabatzeke agindurekin...





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

## ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

## LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

## ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

## ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte

## KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

## PUBLIZITATEA

Miren Moreno

## MAKETATZAILEAK

Mikel Cornejo

## ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

## KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria,

Ion Arrieta, Agurtzane Arriola,

Eduarne Bilbao, M. Angeles Exposito,

Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,

Ane Guilló, Jon Gurrutxaga,

Antton Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ongarri Zine Kluba,

Pello Rubio, Ixidor Solupe,

Leire Urkidi,

Unai Villena eta Julen Zabaleta

## BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

## INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

## TIRADA

4.000 ale

## LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92


## ISSN

1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura

Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz

lagundutako  
aldizkaria.



## Martxoaren 7ko greba dela eta

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Batzordeak Udaleko Alkatetza eta Udaltzaingoko sarjentua den Javier Oñederra salatzen ditu Ertzantzaren kolaboratzaile gisa, martxoaren 7ko greba orokorraren bezperan, ostegunean, Kultur Etxea komisaria-egoitza bezala erabiltzen uzteagatik, bertatik "paisanoz jantzita"ko ertzainak kide abertzaleen iharduerak kontrolatzen saiatzeko asmotan.

PPko neofrankisten "demokrazia eta pakearen" babesle koipetsu den PNVk, egun horretan, berriz ere, bere ertzantza espainolzale eta torturatzaileaz, Euskal Herriari inposatzen zaion "espainiar legedi konstituzionala" ezarri zigun, nahiz eta jakinaren gainean izan, gobernu horrek hartu duen benetako bake proposamen bakarraren aldekoak kartzelaraturik zeudela.

Demokraziarik eza salatu nahian ateara ginen guztiak, errobot enkaputxatu eta armatuen bidez zigortuak izan ginen, kamuflatutako hankamehen bidez edo Kultur Etxeak komisaldegia bihurtzen utzi zituzten laguntzaileen bidez.

Oñederra sarjentuak izan duen bezalako jarrera errepresiboak ez du, ez, gure herriak behar duen benetako bake prozesuan batere laguntzen, herri honek jasaten duen neurrigabekeria politikoaren alde ez dagoen populazio sektorea isilarazten eta zapaltzen bakarrik saiatzeko baita, barneko arazo politikoa ezkutatu eta ahaztarazten duen bitartean, Erreinu espainola eta Euskal Herriaren arteko gatazka, alegia.

Elgoibarko Udaltzaingoa azkenaldi honetan Udaleko mandatarien arbitraritatearen menpe erortzen ari dela ez da gauza berria, eta hauek beraien interes partikularrak babesteko erabili ohi dituztela ere jakina dugu, (esaterako, herriko atarrietan Udaletzeko legezko zigilurik gabeko deialdi fantasmak pegatzeko etab.) baina jadanik, gehiegizkoa iruditzen zaigu ertzantza honen errepresio politikoan ere babesle jarrera agertzea.

Azkenik, Udaltzaingoa erabilpen politiko ez dela bidezkoa irizten diogunez, hauek hiritarreganako duten jarrera, orokorrean, bide horretatik aldendu behar dela pentsatzen dugulako, eta udaltzain gehienak horretaz konsziente direla jakin badakigunez, nahiz eta nor-

bait bere postuan dominen bila ibili, Amnistiaren Aldeko Batzordeak udaltzaingoari eskatzen dio hausnar dezala bere ihardueraren norabidea, eta ez dezala Jauntxoan eta frankista erreziklatuen joko zikinetan bere burua nahastu.

Berari dagokion ihardueretan, izatez, nahikoa lan izaten duelakoan, eta guztion mesederako izango delakoan.

**Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Batzordea**

## Euskal presoak euskaraz bizitzeko eskubidearen alde

Gaur egun, ehundaka Euskal Herriko bizilagun gartzelaraturik daude estatutatu espainoleko eta frantseseko gartzelatan, eta egoera honetan euskal herritar orok dituen hizkuntza eskubideak galarazten zaizkie. Zera eskatu nahi diegu erabakitze-ko konpontzeko ahalbidea duten agintari politiko zein judizialei:

Gartzelaraturik dagoen Euskal Herriko bizilagun ororen eskaraz bizitzeko eskubidea berma dezatela, gutxienez, ondoko puntu hauetan:

1- Euskara edo eta euskaraz ikasteko eskubidea:

a) Euskara ikasi nahi duenari erraztasunak emanez.

b) Edozein ikasketa euskaraz egin nahi duenari inolako trabarik ez jarritz.

d) Aipatutako ezein ikasketa egiteko beharrezko materiala zein euskal prentsa idatzia oztupo gabe jasotzeko bideak ezarritz.

2- Harreman pertsonalak euskaraz izateko eskubidea:

a) Mintzatokietan zein "bis"etan, inolako eragozpenik gabe senitarteko eta lagunekin normaltasun osoz euskaraz hitz egiteko baimena emanez.

b) Idatzizko komunikazioak (gutunak, postalak...) eta telefono deiak euskaraz egiteko debekua kenduz.

Eskubide hauek bermatuko badira, Euskal Herriko bizilagun orok "ezinbestean, bere etxetik ahalik eta gertueneko gartzelan egon behar duenez gero", Euskal Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeak 1996ko urriaren 3an hartu zuen erabakiaren erabateko adostasuna agertu nahi dugu, baita berau gauzatu dadin bitartekoak jar ditzaten eskatu ere.

**Alfonso Eugi, Amaia Larrañaga eta Izaskun Belategi**

## GALDERAK

◆ Herritar batek honako galdera hau luzatu nahi dio Udalari: **“Okin jakin batek bozina jotzen du ogi bana-keta egiten ari den bitartean.** Goizero egiten du, bazueta igande goizetan ere bai. **Ez al dago kutsadura akustikoa debekatzen duen araurik?** Eta baldin badago, ez al dute errespetatu behar?”


Udaltzaingoko sarjentoari luzatu diogu galdera eta hona hemen bere erantzuna: “Egon badago bozina jotzea

debekatzen duen arau bat. **Bozina bitonalak deitzen direnak ere guztiz debekata daude.** Baina okinek auzoetara joaten direnean **bozina jotzea auzotarrek beraiek eskatutako zerbait da,** beraz, kontraesana dago, legeak, batetik, eta herritarrek, bestetik, nahi dutenaren artean. Momentuz, ez dugu aparteko neurriak hartzeko asmorik. Aurrerago, auzotarrek esan beharko dute ohitura horrekin jarraitu nahi duten ala ez”.

## TXALOAK

◆ Urasandiko gazte batzuek auzoko parkean egindako graffiti hau egin zuena txalotu nahi dute. “ZRU hizkiek Zona Radikal

Urasandi esan nahi dute eta identifikatuta sentitzen garen ez, Udaletxeari ez kentzeko eskatu nahi diogu, mesedez”.




◆ “Eskerrikasko txokolatzeko tren miresgarria egin zuen guraso pasteleroari (Juanjo Baztarrrika) Herri Eskolako 1., 2., 3. eta 4. mailakoen partez, oso gozoa zegoelako eta gutaz gogoratzeagatik. Bai gozoa, bai rika (Baztarrrika) !”.

◆ Ikastolako 5. mailako ikasleek **Musikeskola txalotu** nahi dute ikastetxeetan musika kontzertuak eman dituztelako.

## KEXAK

◆ San Rokeko bi gazte etorri dira San Rokeko aldapa hasten den tokitik (Boutique del Pan), Roke tabernara arteko **bidea lotsagarri dagoela** esateko. “Dena zuloz beteta dago. Noiz konpondu behar dute?”

## BAI, ESAN?



**Camilo Otero**  
Galiza Etxeko  
Lehendakaria

Asteburuan Día Das Letras Galegas jaia ospatuko dute Elgoibarko galiziar guztiek Galiza Kultur Etxeak antolatuta. Lerro hauen bitartez galiziar guztiak zoriondu eta bide batez galiziarren jaien inguruan zertxobait gehiago jakiteko aukera aprobetxatu nahi izan dugu. Hara hona **Galiza Etxeko lehendakaria** den **Camilo Oterok** kontatu diguna.

- **Zein da Día Das Letras Galegas jaia ospatzeko arrazoia?** - Jai hauek galiziar kultura bultzatu eta promozionatzeko aproposak dira. Elgoibartar guztiei gure herriko folklorea eta tradizioaren berri emateko antolatzen ditugu, bai gastronomia, ohiturak, kirolak etab.

- **Zein laguntza mota duzue jai hauek antolatzeko?** - Galiza Etxeko bazkideen laguntza batez ere. Hauek gain, badira jai hauek ospatzen laguntzen diguten pertsona mordo bat. Hala ere, ezin dira ahaztu beste erakunde batzuk, Elgoibarko Udala eta Galiziako Xunta, alegia.

- **Zein da kultura bat ez galtzeko sekretua?** - Urtez urte, Día Das Letras Galegas bezalako ekintzak antolatzen jarraitzea. Oso garrantzitsua da gure ohiturak ez ahaztea. Jailetatik aparte, urtean zehar beste ekintza batzuk antolatzen ditu Galiza Etxeak: ihauterietan mozorro jaia, Etxe Errejonalen Eguna Donostian, Festa Do Magosto udazkenean eta Galiziako Eguna Euskadin, uda aldera izaten dena.

- **Zenbat galiziar bizi zarete Elgoibarren?** - Kopuru zehatz-zehatza ez bada ere, 2.350 bat bizi garela kalkulatu dugu. Horietatik 47 dira Galizia Etxeko bazkideak. Lerro hauen bitartez elgoibartar guztiei aditzera eman nahi nieke, galiziarrei ezezik, Galiza Etxea herritar guztiei dagoela irekita.

Jon Aranoa  
Gillermo Torres

**Albaitaritza**  
klinika




San Roke, 26 • Elgoibar • TEL: 74 07 04 – 908 87 39 40



**Gabiola**  
**GESTORIA**

Errenta Aitorpena egiteko azken eguna ekainaren 25a  
Guk lagunduko dizugu **LEHENBAILEHEN EGITEN**  
San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 74 07 97 - ELGOIBAR

# Anorexia: burua gorputzaren aurka

*“Pisua galdu nahi baduzu, soberan dituzun cm. horiek kendu nahi badituzu, ez baduzu zure sudurra atsegin, ezpain lodiagoak izan nahi badituzu, bularrak handitu nahi badituzu... Hori guztia eta gehiago egin dezakegu zugatik”. Honelako iragarkiak egunero en-tzun eta ikusten ditugu komunikabideetan. Gaur egungo gazteak gizarte “light” batean hazi dira eta gorputzaren kultoa nabarmentzen da. Irudiaren diktadura bizi dugu. Denok nahi genuke gaudena baino argalagoa, altuagoa edo ederragoa izan. Edozein preziotan? Anorexia gizarte honek sortu duen gaixotasuna da. Merezki baino garrantzi gutxiago ematen zaio eta, oraindik ere, anorexiko eta bulimikoak euren buruaz lotsatu egiten dira, gaixo dardela ezkutatu.*

**1**,57 m. eta 46 kilo. S.F. k gaur egun neurri horiek ditu baina 15 urte zituenean 30 kilo bakarrik pisatzen zuen. 6 hilabete pasa zituen ingresatuta, horietako bat UVIan. Bulimia eta anorexia, biak pasatu ditu eta oraindik ere hor jarraitzen du, “anorexia bizitza osoan sendatzen ez den gaixotasuna da”, aitortu digu.

## Bulimiatik anorexiara

14 urte zituenean hasi zen S. eta bere amarentzat, M.B., benetako infernua etxean. Garai hartan 48 kilo inguruko pisua zuen eta ballet-eko irakasleak pare bat kilo kentzeko esaten zion. S.k soluzio bikaina topatu zion arazoari, “nahi bes-

te jan eta gero, ezkutuan botaka egiten nuen”. Etxean, noski, ez zioten ezer ere igartzen, “asko jaten zuen, gehiegi eta hala ere argaldu egiten zen”, azaldu digu amak.

## Egunean madari erdi

Lehen fasean, beraz, bulimia izan zuen S.F.k. Gero, guztiz kontrakora pasatu zen, “demaseko platerkadak jatetik, egun osoa ezer jan gabe egotera pasatu nintzen. Uda zen, oporretan nengoen eta amak prestatzen zikidan ogitartekoak zakarrontzira joaten ziren zuzenean”. Bi hilabete pasa zituen ezer jan gabe, “asko jota madari bat”. Ez jateaz gain, ki-



lometroak eta kilometroak egiten zituen oinez, “egunean 5 km. egiten nituen. Obsesionatua nengoen jatekoarekin eta ejerzizioarekin”. Urrian ingresatu egin behar izan zuten, “38 kilo pisatzen nituen”. Eta hala ere bere gorputza lodi ikusten zuen ispilu aurrean, “ama, begira nolako lodia nagoen, begira, begira!, oihukatzen zidan erresidentzian”, kontatu digu amak.

## 30 kiloko pisua

Helburua gutxienez 40 kilora iristea zen, “ez nuen indarririk, ezin nintzen ibili”. Amari, “lagundu, sendatu nahi dut, bestela hil egingo naiz eta” esaten omen zion. Halere, erresidentzian medikuek ere ez zekiten zer gertatzen zitzaien, “anorexiari buruz ez zekiten ezer, ez medikuek ez sikologoek”. Eta erresidentzian egon zen lehen hilabeteetan, pisua irabazi beharrean, galdu egin zuen, “ez nuen jaterik nahi. Sendatu egin nahi nuen, baina jan gabe. Pasiloan janariaren karroa entzute hutsarekin izerditan hasen nintzen eta ekartzen zidatena leihotik behera botatzen nuen”. Egoera horretan, 38 kitolik 30era jaitsi zen.

Medikuek ez zekiten zer egin, sikologo batekin hasi zen, baina alferrik. Sonda jarri behar izan zioten, “baina nik botaka jarraitzen nuen. Botatzeko ezer ez nuen bilisa, odola edo zer botatzen nuen. Ezta rria erreta, eskuetan orbainak... Nahiago nuen hilda egon jan eta loditu baino”.

Mediku eta sikologoak astebeteko bizitza itxaropena ematen ziotenean, S.k jatea erabaki zuen. “Ez dakit zer aldatu zen nigan. Beharbada bakardadeak beldurtu ninduen, nire amaz akordatu nintzen... UVIan hilabete pasa nuen eta oso gogorra egin zitzaidan. Ez zidaten inor ikusten uzten”. Poliki-poliki jaten hasi zen, nahiz eta noizean behin botaka egiteko tentazioa izan. Gutxieneko pisura iritsi zenean atera zen erresidentziatik.

### Fruta eta yogurra

Gaur egun 46 kilo pisatzen ditu baina oraindik ez du denetik jaten, "fruta, yogurra, barazkiak... Ez oke-larik, ez arraultzarik, ogia eta gozoak pentsatu ere ez... 10 urte izango dira ogirik ez dudala probatu. Gabonetan langostinoak jaten ditut, baina hori bakarrik". Ama ohitu da, "orain gutxienez zerbait jaten du. Zerbait esanez gero kontrakoa egiten du. Onena pakean uztea da". S.k sekula ez dela erabat sendatuko uste du, "tope bat jarri diot nere buruari. 50 kilotik ezin naiz pasatu".

### Obsesioa

Gaur egun bere burua ondo ikusten du, "persona guztiak bezala, batzuetan ispilura begiratu eta lodi ikusten naiz, hori bai". Baina zorionsua da, "lantxo bat bakarrik falta zait". S.k eta bere amak dei egin nahi die persona guztiei kontu handiz ibil daitezen, "sekula ez dakizu noiz gertatuko zaizun. Gizarte honek eredu batzuk inposatzen ditu eta obsesioak bizi gara. Kirol munduan, dantza munduan, askotan medikuek ere 5 urteko umeei esaten die argaldu egin behar dutela. Eta pisuarekin, janariarekin ezin da jolastu. Bizitza dago arriskuan".

## ANOREXIARI BURUZKO GALDERA ETA ERANTZUNAK

### - Zer da anorexia?

- Jatearen jarreran gertatzen den aldaketa. Anorexikoak garrantzi handiegia ematen dio pisuari, obsesionatu egiten da eta ez du, inolaz ere, loditzerik nahi. Argaldu eta hezurretan geratzen denean ere, bere burua lodi ikusten du. Sendatzea nahi badu ere, jan gabe eta loditu gabe sendatu nahi du.

### - Eta bulimia?

- Bulimiaren helburua anorexia-

ren berdina da: argaltzea. Baina metodo desberdinak erabiltzen dira. Anorexikoak jateari uzten dio. Bulimikoak neurritz kanpo jaten du eta segidan, jandako guztia kanporatzeko botaka egiten du, atzaparrak eztarrian sartuz. Jatekoa pisatzen hasten da, neurtzen, ariketa fisikoa egiten etengabe, laxanteak hartzen ditu... Halere, anorexia eta bulimia oso lotuta daude. Izan ere, anorexiko batek bulimia etapak pasa ditzake eta alderantziz, bulimiko batek jateari utz diezaioke.

### - Zeintzu dira gaixotasun hauen eragileak?

- 100 kasutik 90, 12 eta 30 urteko emakumeak dira. Oso arraroa da anorexikoak egotea Asian, Afrikan edo Ipar Amerikako beltzen artean. Ez dago ezberdintasun biologikorik baina ohitura soziokulturalek asko markatzen dute eta gaur egun bizi dugun gizarte "light" honek, gorputzari egiten zaion kultuak eta irudiari ematen zaion garrantziak eragin handia dute.

### - Nork tratatzen du gaixotasun hau?

- Psikologo, psikiatra eta endokrinosen lana izaten da. Guztiek dute zeresana eta zeregina. Gaixo zailak izaten dira, gerta daiteke anorexiko bat bere bizitza osoan anorexikoa izatea. Ez dute jaten, baina izugarri gustatzen zaie besteentzat kozinatzea. Gezurrak esaten dituzte, etxean arazoak dituzte baina kalean ezer gertatuko ez balitz bezala jokatzeko dute... Depresio txiki bat 15 egunetan senda daiteke, hiru hilaletan, baina anorexia...

### - Terapiak ez al du balio?

- %60a bakarrik sendatzen da. Ez hori bakarrik, hobekuntza tratamendua hasi eta 5, 15 edo 25 urtera igartzen da. Halere, sintomak ez dira sekula desagertzen eta edozein momentutan berriz gaixo daitezke.

### - Zein ondorio izan ditzake?

- Osteoporosia, antzutasuna, hilerokoaren desagertzea... bulimiaren kasuan, botaka egitearen ondorioz ixurtzen den sabeleko azidoak esmaltea izorratzen du eta haginak galtzeko arriskua egoten da eta bihotzean eta giltzurrunetan ere ondorio larriak izaten dira.

## OBSESIO BATEN RADIOGRAFIA

**Perfila:** Gizarte maila ertain-altua. Inteligenteak eta egonezina dutenak. Sormen gaitasuna. Perfekzionista. Bakardadea atsegin dute. Inseguritatea. Autoestima baxua. Ambiziosoak.

**Arrazoiak:** Pisu igoera bat batekoa. Traumatismo fisikoak. Balleta, gimnasia edo dantza. Modeloak. Estresa, maitasun arazoak. erlazio sexual txarrak.

**Gizonak:** Hamar emakumeko gizon batek jasaten du gaixotasuna, batez ere presio gutxiago jasaten dutelako emakumeek baino irudiari dagokionean.

**Adina:** Media 16 urtean kokatzen da baina gero eta neska gazteagoren artean ematen dira kasuak, 9 urtetik aurrera.

**Sintomak:** zaila da anorexia detektatzea oso berandu den arte. Gaixoa oso argala egon arte ez da nabarmena izaten.

- Loditzeari beldur izugarria.
- Ariketa fisikoa etengabe egitea.
- Jatekoa zati txikitik moztu, platerrean jatekoarekin jolastu, jatekoaren koipea serbiletan batekin lehortu, jatekoa bota inork ikusten ez duenean...
- Gaixoez beren burua beti ikusten dute lodi, oso mehe daudenean ere. Gorputzaren irudi distortsionatua.
- Isolamendu soziala. Izaera eta umore aldaketa. Depresioa.
- Amenorrea: hilerokoa desagertzen da.
- Oso argal eta gaixo daudela esaten zaienean, haserretu eta defentsibanez jartzen dira.

# Merezi al du sufritzeak mehetzeko?



**ANE ETXEBERRIA**  
14 urte, ikaslea

Bai, osasunagatik batez ere. Hala ere, 10 kilo sobran eukiko banitxun eingo naban rejimena ze oin modelo guztiak hain argalak dao... Inori ez jakoz gustatzen mitxelinak.



**ANGELITA MORENO**  
48 urte, etxeoandrea

Sekula ez dut pisuarekin arazorik izan baina lodi egongo banintz pentsatu egingo nuke. Kilo batzuren-gatik ez, baina kilo askoren-gatik sakrifikatuko nintzateke.



**M. LUISA ARANGUREN**  
41 urte, etxeoandrea

Segun eta ze loditxasun. 4-5 kilogatik jateari utzi eta korrika eitxen hastiak ez dau merezi. Loditxasun haundixa euki ezkeru bai, osasunagatik batez ere.




**NEREA MACHADO**  
24 urte, salmenta ardura-duna

Norbera gorputzakin gustura sentitzen dan ala ez ikusi, eta zelako esfortzua ein bihar daban neurtu eta gero, bakoitzak ikusiko dau merezi dion ala ez.



**SABAS BOYERO**  
20 urte, ikaslea

Ni argal nao beti izan naizelako hola. Lodi egongo banintz agian eingo naban errejimena, baina esfortzua txiki-txikia izan ezkeru. Asko kostatuko balitzait, ez.



**JOSE MANUEL BARANDIARAN**  
64 urte, jubilatua

Nire kasuan bai, medikuak agindu zidalako, osasunarengatik. Dagoeneko 8 kilo kendu ditut eta beste 5 kendu behar ditut. Ez da hain gogorra argaltzea.

Pedro Muguruza 5  
Tel 74 08 06  
20870 ELGOIBAR

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal

**URKIDI**  
**AHOLKULARITZA**  
**ASEGUROAK**

Kalamua 12  
ELGOIBAR  
Tel-Fax:  
74 18 91

**KAROBI**  
**TABERNA**

Tel. 74 06 37  
San Frantzisko, 37

ELGOIBAR



# Anorexia: gizarte honetako epidemia

**A**norexia nerbio edo Anorexia mentala elikaduraren jokaeran gertatzen din arazoari deitzen zaio. Kultura ezberdinetan aspalditik ezagutzen den gaixotasuna izan arren, ekialdeko gizartean azken 25 urteotan izugarri igo da anorexia kasuen kopurua, ia-ia epidemia bihurtuz.

Neska nerabe eta gaztearen artean %1a agertzen da. Sexuari dagokionean, gizonezkoen artean ematen den kasu bakoitzeko 9 ematen dira nesken artean.

Anorexia ez da gaixotasun arraro bat. Nerabeta-sunean aurkitzen diren neskak, bat batean, inolako arrazoi organikorik izan gabe, argaltzen hasten direnean kontu handiz ibili behar da. Pisuaren galaraz gain, badaude beste zenbait sintoma ere, anorexiaren berri eman diezaguketenak: hilerokoarekin gorabeherak, pisua eta gorpu-tzaren itxuraren perzeptzioan gorabeherak eta, batez ere, loditze-ari beldur izugarria.

Gaixotasun honen arrazoiak ez daude oso gar-

bi. Elikadura txarrak eragindako sintoma fisiko eta psikikoak daude. Gaixotzearen prozesuan faktore biologiko, psikopatologiko eta, batez ere, sozio-kulturalek (gizarteak gaur egun argaltzeko egiten duen gehiegizko presioa) eragiten dute.

Anorexiaren tratamendurako arazo guztiak kontuan izan behar dira eta beharrezkoa da pisua igo eta mantentzea. Anorexia nerbioaren heriotza kopuruari dagokionean, nahiko altua dela esan behar da, izan ere, datu batzuen arabera, %18an kokatzen baita. Gaixo batzuen kasuan

beharrezkoa da ospitalean

ingresatzea sendatu

ahal izateko. Era berean, anorexiakoek beharrezkoa dute


psikiatra, psikologo eta endokrinonutrizionistek elkarlanean aritzea bai eta elikadura unitatea duten ospitalen lana ere,

nahiz eta gaur egun Gipuzkoan horrelakorik egon ez.

Julio Ruiz de Gordejuela, Endokrinologia eta Elikaduran espezialista

Julio Ruiz de Gordejuela, Endokrinologia eta Elikaduran espezialista

# iSPILUA-BERRI DEGIARA



Venancio Oñederra

BIENAKO arotza

- **Nolakoa litzateke zure neurrira eginiko bizimodua?** - Lan on bat, etxebizitza bat eta osasuna izan ezker...

- **Zein erreforma egingo zenuke gizartean?**

- Gehixen bat bihar dana da jendiak elkar ulertu eta tolerantia izatia.

- **Noraino iritsi nahi zenuke eskailera luze batzuk igoz?**

- Zenbat eta eskailera luzio ipini, orduan eta goro igo nahi dou beti. Bizimoduak exigitzen dizun gauza bat da.

- **Sekula izan al duzu ohean ohol bat?**

- Bai. Andriak bizkarreko mina zakala eta ipini gendun kostata, baina ohitxu ein ginan.

- **Zeinen aurrean zabalduko zenuke atea?**

- Edozein pertsonan aurrian.

- **Eta nori itxiko zenioke?** - Lelengo ireki, pasatzen laga eta ezagutu eingo nuke.

- **Ba al dakizu orainaldia bizitzen?**

- Ahalegintzen naiz baina beti daude beste gauza batzuk zaildu eitzen dabena.

- **Loteriarik onena?** - Osasuna.

- **Zortea, ahalegina ala kasualitatea?**

- Nik uste dot norberak bilatzen dabala dana.

- **Zein arte-lanengatik ordainduko zenituzke milioiak?** - Hortan ez dot entenditzen eta nahixo terreno edo arbolada baten gastatzia.

- **Famatua izan nahi zenuke?**

- Nahikua famoso gera lan ein eta bizimodua aurrea etarutzen dou bitxartian.

- **T.B.ko saio bat?** - Dokumentalak.

- **Bidaia luze bat egiteko garraioa?** - Abioia.

- **Osasunerako ohitura on bat?**

- Jana eta edana neurtzia.

- **Abesti bat?** - Habanerak asko gustatzen jataz.

- **Ilusio bat?** - Ointxe gauden bezela, osasunakin, jubilazioara ailegatzia.

- **Agurtzeko era bat?**

- Ikusi arte!

## ● 1942an

## jaiotakoen topaketa

1942. urtean jaio direnen elgoibartarren topaketa antolatu da ekainaren 14rako. Egun horretan meza eta bazkaria izango da. Jaiari parte hartu nahi duen guztiak zenbaki hauetara dei dezake: 74 06 89 (Elisabeth eta 74 41 57 (Maribel), gaueko 9etatik 11etara bitartean.

## ● Patxi Arriolari omenaldi bazkaria

Hilaren 24an, ehiza-txakur-  
ren Trinitate Saria izango da goizeko 9etatik aurrera Albitxuriko zelaian. Eguerdirako, La Unión elkarteak Patxi Arriolaren omenezko bazkaria antolatu du. Izena emateko lehenbailehen elkartetik pasatzea komeni da. Hilaren 25ean, berriz, pitxoi tiraketa saioa izango da Albitxurin herrikoentzat, eta arratsaldean probintzia guztietako tiratzaileentzat. Bi txapelketetan izena emateko epea egunean bertan irekiko da.


## ● Mintxetakoak, Gipuzkoako txapeldunak

Mintxeta Atletismo taldeko alebin taldea, Maialen Mora, Eire Vila, Ana Etxaniz eta Amaia Oterok osatutakoa, Gipuzkoako txapeldun izan zen joan den zapatuan Oreretako kiroldegian. Bestetik, larunbat goizean banakako Gipuzkoako txapelketaren bigarren txanda jokatu da Mintxetan. Ana Etxanizek Gipuzkoako txapeldun izateko aukera handia dauka, luzeran, 150 hesietan eta altura jautsian.

## Enrike Larrañaga irakaslea saritu du Irudi Biziak programak

Joan den astean Enrike Larrañaga Institutuko filosofia eta etika irakaslea izandakoak saria jaso zuen Irudi Biziak programari egindako aportazioaren errekonozimendu modura. Irudi Biziak programaren helburua drogomenpekotasunen prebentzioa eta gazteen baloreak lantzea da eta Jaurilaritza, Udaletxe ezberdinak, Institutuak eta irakasleen artean koordinatzen da. Urtean bost filme aukeratzen dira eta herri ezberdinetako zinematokietan ematen dira eskola-orduen barruan. Ondoren, pelikulan agertzen diren gaiak, gaur egungo gazteen problematikarekin lotutakoak denak, klasean lantzen dira irakasle eta ikasleen artean. Enrike Larrañagak esan bezala, "lan hori ikasleekin ezezik, hauen gurasoekin ere egitea proposatu nuen". Hortaz, seme-alabek ikusitako pelikula bera gurasoek ikustea eta jarraian elkarri ziketa modukoa sortzea izan zen En-

rikeren aportazioa. Baserri bat irudikatzen duen eskultura-saria, berari ezezik, Elgoibarko Institutuari ere badagokiola aipatu zigun Enrikek.



## Diseinatzaile elgoibartarrak, Bilboko Expoconsumo ferian

Irune Araujok eta Ana Isabel Marin-ek, 19 urtekoa bata eta 22koa bestea, Bilbon izan den Expoconsumo ferian parte hartu dute Diseinu eta

Modari buruzko 10. lehiaketan. Bi diseinatzaile elgoibartar hauek udaberri-udako 4 traje aurkeztu zituzten. Euren jantziek saririk jaso ez zuten arren,

bi diseinatzaileak oso pozik daudela esan digute parehartzeko hutsarekin. Estatu osotik 62 diseinatzaile aurkeztu ziren, gizon, emakume eta haurren sailetan. Argazkian elgoibartar hauek egindako jantziak ageri dira modeloen gorputzetan. Argi dagoenez, "ausartak eta sexy-ak" dira elgoibartar gazte hauek egindako diseinuak. Sariak ematerako orduan orijinaltasuna eta kreatibitatea hartu ziren kontuan. Epaimahai-kideen artean, Angela Arregi eta Antonio Pernas diseinatzaileak, eta modeloak eta kazetariak zeuden.



## HIESaren aldeko erakusketa eta errifa antolatu du Errotatxok

Errotatxo Elkarteak antolatuta, HIESaren aldeko prebentzioren alde, herriko artisten arte-lanak ikusgai daude Errosario kaleko Tik-Tak dendan. Zortzi artistaren lanak dira: Gemma Monreal, Jose Ramon Elorza, Jose Juaristi, Mari Jose San Millan, Mertxe Sueskun, Nerea Aranburu, Ramon Ortega eta M. Fran Unzueta. Lanak zozketatu egingo dira hilaren 31n, jendaurrean, Madalako parkean. Errotatxok HIESaren prebentziarako ekintzak antolatzeko helburuarekin atera du errifa hau. Tik-Takean ezezik, zenbait taberna eta dendatan ere eskura daitezke zozketarako txartelak.



## Emakumeei zuzendutako osasun zikloa

Haizea Emakume Taldeak, Udal Ongizate Sailaren laguntzaz, emakumeentzako antolatutako hitzaldi-saioen lehenengoa da argazkikoa. Aurkezpena Maria Jesus Arzuaga medikuak egin zuen eta jarraian, transparentzia batzuen laguntzaz, Ana Gómez sendagileak osteoporosia, hipertentsioa eta bihotzeko gaitzen prebentziari buruz hitz egin zuen. Lehen hitzaldi honetara 40 bat emakume hurreratu ziren. Aztertuko diren gaien garrantzia ikusita, tabakoa, alkohola, menopausia, ondo jatea, kirolaren garrantzia, pisua etab., Haizea Taldekoek emakume guztiak hitzaldietara joan daitezzen animatu nahi dituzte.

## Jubenilen Gipuzkoako Txirindulari Txapelketa

Igandean, hilak 18, Gipuzkoako Txirindulari Txapelketa jokatu da Elgoibarren, jubenilen kategorian. Irteera Plaza Handian izango da arratsaldeko 4etan eta helmuga Mintxetan arratsaldeko 6.:30etan. Ibilbidea honako hau da: Elgoibar, Bergara, Elgoibar, Bergara, Elgoibar, Deba Mutriku, Kalbarria, Saiola eta Elgoibar. Lagun Taldekoen esanetan, txirindulari elgoibartarren arteak, Ramon García fin dabil azkenaldian. “Lasterketa guztietan lehenengo 5 postuetan sartu izan da eta irabaztea zaila bada ere, ilusio horrekin gaude”.



## Alkortak jarritako salaketaren denuntzia

Gazte Asanbladak antolatuta, Herri Institutuko zenbait ikaslek manifestazioa egin zuten joan den ostiral eguerdian. Manifestazioaren arrazoia, Alkortak elgoibartar baten aurka jarritako salaketa izan zen. Aipatu salaketa pertsona bakar baten aurka jarrita dago eta Gazte Asanbladak Alkortaren jarra denuntziatu nahi izan zuen manifestazioarekin.



## “Humedades” saioaren arrakasta

Joan den ostiral gauean Herriko Antzokian izan zen “Humedades” dantza saioak arrakasta izugarria izan zuen. Antzokia bete egin zen Damian Muñoz-en dantza konpainiaren saioa ikusteko eta ikuskizuna merezi duten horietakoa izan zen. Saioaren lehen zatian “Por qué lloran las ce-bollas?” izeneko ikuskizuna taularatu zuten, eta ondoren, “Humedades”. Ikuslekoak txalo-saio luze batekin saritu zuten dantzarien lana.

aitor

● Pinuen mozketa

San Rokeko 7 zenbakia duen etxebizitzaren atzean zeuden pinuak moztu egin dituzte. Dirudienez, aipatu pinuak duela urte batzuk bizilagunek landatu zituzten baina orain, Udaletxean eskaera luzatu dute paretik kentzeko.

Izan ere, zuhaitzak uste baino gehiago hazi dira eta, besteak beste, eguzkia eta bista kentzen dizkiete. Hirigintzan esan digutenez, asmoa, epe laburrera, toki berean beste zuhaitzen batzuk landatzea da, frutarbolak edo, baina aurretik zeuden pinuak baino gutxiago haziko direnak.



## San Rokeko saneamendu sarea konpontzen ari dira

Inguruan usain txarra zegoelako hasi dituzte obrak

**S**an Rokerako zubian, trenbide gainean, arazoak izaten ziren usain txar eta zikinakin. Hori dela eta Udal harremanetan jarri zen N.P.C. Ingenieria S.A. enpresarekin, beharrezko azterketa egin eta arazoaren jatorria jakin asmoz.

Iruñeko enpresa honek lur azpitik t.b. zirkuitoak sartu zituen usain txarren jatorria ezagutu asmoz. Ikusi ahal izan zuten, apurtutako tuberia batek araztegiaren lana oztopatzen zuen eta, ondorioz, usain txarra hedatzen zen inguru guztian.

Konponketa lanak egiteko bi eskaintza jaso ziren Udaletxean eta merkeena hartu zen, Ulazia aroztegiarena hain zuzen. Obren aurrekontua 1.290.000 pta.koa da eta astebeteko iraupena izango dute, gutxi gora-behera.



Obren aurrekontua 1.290.000 pta.koa da eta astebetez luzatuko dira.



### III. URTEURRENA

1994ko maiatzaren 18an hil zen **JOSE ANTONIO GOROSTIZA OTAEGI**ren omenez domekan, hilak 18, goizeko 8'30etan meza izango da Madalako elizan.

Sendiak aurrez **ESKERRAK** eman nahi dizkizue joango zareten guztioi.

# BARREN

L.H.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 33. GEHIGARRIA



**D**errigorrezko Bigarren Hezkuntza hasi eta Ikastolako ikasle bakoitzak aukerako irakasgai bat apartatzen du honako eskaintza hauetatik: Frantsesa, Bizitzarako Matematika, Artisautza eta Teknologia Sortzailea

eta Ikusentzuteko nahiz Gorputzeko adierazpena. Argazkiko ikasle hauek ikusentzuneko nahiz gorputzeko adierazpena hautatu zuten eta horretan gutxienez bi ikasturte emango dituzte, "Etorkizuna gustura gauzatzen" lemapean.

## *Tristeza*

- Zerbitzu Sekretuaren egoitza al da?
- Barka, baina ezin dizut esan.



**Jakitunen eskutik**

# Noiz eta nola hasi behar gara seme-alabekin sexuaz hitzegiten?

**B**i erruk baldintzatu izan dute haur sexualitatearen planteiamendua:  
 1- Haurren sexualitatea ukatu egin izan da.

2- Birsorkuntzari begira bakarrik hartzen ziren zilegitzat jarduera sexualak (ezkontza barruan beti ere). Honela, haurra interes sexualetik kanpo geratzen zen.

Halere, begibistakoa da haurrak sexudunak direla, interes sexualak dituztela eta beren sexualitatea jokabide jakin batzuetan adierazten dutela.

Lotura afektiboek sexualitatea bizitza osoan zehar bideratzen dutela kontuan hartuta, ezinbestekoa da lotura hori txiki-txikitatik eutsi eta garatzea. Adin txikietan sexualitatea gorputzeko sentrazioen inguruan bizi eta garatzen da, ukitzen eta ukituak izaten ikasiz, begiratzen eta begiratuak izaten ikasiz eta

komunikatzen eta besteek esandakoa ulertzen ikasiz. Hauek guztiak funtsezko elementuak dira sexu trukaketan.

Berezitasun anatomikoak ere igarriko ditu eta bat bateko galderak egiten hasiko da. Galdera, zalantza eta kezka hauek azaltzen dituztenean, hasiera-hasieratik argi eta garbi erantzuten saiatu behar dugu. Beraz, sexualitatearen barneraketa era natural eta bat batekoan izaten da haurrengan eta hori dena inhibiziorik gabeko jokaera pedagogiko baten arabera da. Horregatik, guraso eta hezitzaileek haurrean lehen urteetatik garapen hau estimulatu eta egoki bideratuko duen giroa sortu behar dute.

Garapen afektibo-sexualari buruzko ikastarotik ateratako ondorioak.

**(Ikastolako Haur Hezkuntza eta Hasera Zikloko irakasleak)**

## Zer iritzi daukazu ..... *fans* .....ei buruz?



Ni Spice Girls-en fansa naiz. Oso ondo dantzatu eta abesten dute. Aso gustatzen zaizkit.

SARA GUTIERREZ, 9 urte



Fansak egiten dugu pertsona bat famatua. Fansik gabe ez litzateke pertsona famaturik ongo. Ondo iruditzen zait.

EVA MARIA ACUNA, 14 urte.



Fansak beti daude famatui inkordiatzen sinadura bat lortzeko.

IKER ARRILLAGA, 10 urte



**AMAIA  
GABILONDO**  
6 wt vg

## Galde debalde

- 1- Nora joango zinateke globo batean?
- 2- Zein zaporeko goxokia gustatzen zaizu?
- 3- Ogitartekorik onena?
- 4- Egunik politena?
- 5- Zer egiten duzu ez aspertzeko?
- 6- Non dago munduaren amaiera?
- 7- Nolakoa da zerua? Eta infernua?
- 8- Lotarako?
- 9- Litzarkeria bat?



**AINGERU  
OSORO**  
13 wt vg

- 1- Txinara eta bada ez bada parakaidasa erango nuke.
- 2- Fresa.
- 3- Pate La Piara.
- 4- Asteburua, txakurrakin eta lagunekin jolasteko eta eskolara ez juteko.
- 5- Kalera urten.
- 6- Afrikan.
- 7- Zerua urdina eta zuria eta infernua gorria.
- 8- Kamisoia.
- 9- Patatak.

- 1- Hawaira.
- 2- Limoizkoa.
- 3- Gaztaia menbrilluakin.
- 4- Ostirala, aurretik astebukaera osua daualako.
- 5- Telebisiva ikusi.
- 6- Batek daki! Ez da amaitzen inun!
- 7- Zeruan dana ona da eta infernuan dana txarra.
- 8- Neguan pijama luzia eta udan motza.
- 9- Flash izoztuta.

## Zer da... *zortea* ...?

**CRISTINA TEXEIDA 10 URTE**



Loterian milioi asko irtetea eta nahi dituzun gauza guztiak edukitzea. Hori da zortea.

**MIKEL GALARZA 8 wt vg**



Baserri bat eraikitzea eta zure urtebetetzean ahuntz bat oparitzea.

**ITSASO GARITAGOITIA 9 URTE**



Kupoia tokatzea eta familiarekin bizitzea zortea izatea da.

**MAIALEN SANCHEZ 11 wt vg**



Zortea lagunak edukitzea da.

**ANDONI GOMEZ 7 URTE**



Gauzak egiten jakitea da zortea.

**ANDONI GONZALEZ 11 wt vg**



Kontrol bat egiten bazaude, zure lagunei kopiatu eta zure irakaslea ez bada enteratzen, hori da zortea.

# Denborapasak: ezetz asmatu!

## 1. Telebistako zein saio da?



## 2. Zer galdetu diegu?



**AINHOA DORADO**  
9 urte

"Txakurra. Danak gustatzen zaizkit asko baina bat aukeratzekotan pastor alemanakin geratzen naiz. Oso ondo bizi diala uste dot, egun guztia kalian, edo etxian ondo zainduta..."


**ANDONI**  
**ARRUABARRENA**  
10 urte

"Txakurra, asko gustatzen jata. Gehixen gustauko jatan familia batekin bere etxian bizitzia, ez kazarako, ez beste ezertarako ere".



ERANTZUNAK: 1.-"Euskarokoa" 2.-Zein animalia izan nahi zenuke?

# Artisten txokoa





*Madriren jaio zen baina urtebete zuela familia Debara joan zen familia bizitzera. Juan Albarran pastelero izateagatik ezagutzen dugu Elgoibarren. Baina, jakin ahal izan dugunez, 54 urte dituen gizon honek gaztaroan bestelako afizioak ere izan zituen, magia kontuetan aditua zen, esate baterako. Magia truko eta pastel gozoak tartekatuz hitzegin dugu berarekin.*

# JUAN ALBARRAN

## “Magiarik ikusgarriena da errazena”

**– Zer egiten zuen pastelero batek magia kontuetan?**

- Beti gustatu izan zait. Aldizkarietan magiari buruzko gauzak irakurtzen nituen eta postaz eskatzen nuen material guztia. Etxean, nire kontura trukoak ikasi nituen.

**– Ikasi eta baita ikuskizunak eman ere.**

- Hori koadrilarekin izaten zen. 14 urterekin Eibarrrera joan ginen bizitzera eta kuadrilan bakoitzak gauza bat egiten zuen: musika talde bat sortu genuen, batzuek abestu egiten zuten, beste batzuk instrumentuak jo eta niri magia kontuak gustatzen zitzaizkidanez... Deitzen gintuzten toki guztietara joaten ginen baina dena afizio hutsez egiten genuen. Oso ondo pasatzen genuelako.

**– Sekula gertatu al zitzai-**

**zun magia-trukoren batek kale egitea?**

- Bai, eta egun hartan izan nuen arrakastarik handiena. Jendeak ez zuen sinetsi gaizki atera zitzaidala eta benetan trukoak horrela zela pentsatu zuen.

**– Mago onaren trukoa?**

- Aurpegi handia izan behar da eskenatokira igo eta jende aurrean aritzeko. Hortik aurrera bakoitzak era batera edo bestera lantzen ditu trukoak. Nik, jendeari asko hitzegiten nion, hitzekin despistatu eta trukoak inork igarri gabe egiteko.

**– Zein zen zure espezialitatea?**

- Kartekin egiten ziren esku-jokuak gustatzen zitzaizkidan gehien.

**– Kapelatik usoak atera, emakumeak erdibitu, pertsonak desagertarazi...**

- Miraririk ez dago, gauza guztiek trukoa dute. Zenbat eta ikusgarriagoa izan, orduan eta errazagoa da. Halere, ez dut trukorik azalduko. Trukorik zailenak eskuz egiten direnak dira, kartekin eta, abilezia handia behar delako jendea ez konurtatzeko ezertaz.

**–Jarraitzen al duzu?**

- Utzita dut. Elgoibarrera etorri eta nere kontura pasteleria ireki nuenean ez nuen denborarik beste ezertarako. Materiala gordetzen nuen baina azken aholdeak dena eraman zidan eta...

**– Eta etxean, ba al duzu jarraipenik?**

- Alaba txikiari gustatzen zaio. Bera da galdezka etortzen zaidana.

**– Erremintariaren etxean, egurrezko goilara.**

- Gurean ez. Gurean igandero pastelak jaten dira. Niri asko gustatzen zaizkit.

**– Guztiak?**

- Kokodunak ez ditut sekula jan.

**– Pastelero izateak ere ba al du arte puntua?**

- Dударik gabe. Osagaiak berdinak izan daitezke pastel bat egiterakoan baina pastelero bakoitzak ikutu berezia ematen dio: kantitatea, forma, azken ikutua...

**– Esaiguzu, nori botako zenioke natazko tarta bat aurpegira?**

- Beharbada nire izena eman dizuen pertsonari! Ez, broma da. Sekula ez nioke inori tarta bat botako. Ez zait bat ere gustatzen. Pailazok grazia egiteko tartarena erabiltzen dutenean ez dit graziarik egiten. Pasteleroek egiten dugun lanarekiko errespetu falta dela iruditzen zait.

### BESTEAK ESANA

**“Magia eta espektakuloen mundua izugarri gustatzen zaio. Pertsona alaia, positiboa eta irekia da. Familia eta lagun artean gustura egoten dena”**

MAITE FRANCO (Emaztea)



# Nor ote da?

Itsasoan urak haundi dira. Indalecio Ojanguren eibartar argazkigile "Agila", famoso eta mendizale amorratuak, sei zentenario egin zituen. Ez dakiguna da, Euskal Herriko zenbat mendi-gailur egin zituen.

Badakigu jakin, Navacerradan egona zela eta bertan betaurrekoak galdu zituela. Betaurrekoen estutxeak "Eibar" soilik jartzen zuen eta aurkitu zituenak Eibarko Udaletxera bidali zuen idatzi batez lagundurik, non aurkitu zituen jakinaraziz. Eibarren, hartu bezain laister asmatu zuten norenak izan zitezkeen. Indaleciorenak izan ezean, norenak ba?

Baina hemen azaldu nahi dizuegun pertsonaia hurbilagoko dugu. Elgoibarren bertan ere badugu gure "agilatxo". Hau da, Hego Euskal Herriko Mendizale Elkarteak, 583 mendi gailur ditu bere sariketa edo konkurtsoetarako onartuak. Besteak beste, Elgoibarko mendizale hau, mendi-gailur guzti hauetatik igaro da, ixil-ixil eta apal-apal. Bai, 583 mendi gailurretatik. Bada zerbait.

Baina, nor ote Elgoibarren jaio, hazi eta hil berri den pertsonaia hau?

**Testua: Felix Etxeberria "Parapan"**

Erantzuna baldin badakizu, BARREnera ekarri.

## Jose Garcia Lopez (1909-1987)



- 1909ko azaroaren 7an jaio zen, Ginzo de Limian (Orense).
- Zazpi anai-arreba ziren, berau bigarrena.
- Eskola gehiegi ikasi gabe, oso gazterik euren baratzean lanean eta herrian panadero edo okin lanetan hasi zen.
- 1932an ezkondu zen Carmen Fraguasekin, Orenseko Verin herrira bizitzera joan zirelarik lan kontuengatik. 6 seme-alaba izan zituzten.
- Geroago, Orenseko Allariz-era joan zen bere kontu lan egitera, 1952ra arte, beti ogibide berdinarekin.
- Miranda de Ebrotik Altsasura bitarteko trenbidean lan egin zuen; errrepideak egiten Monasterio de la Rodillan, Bribieskan, Ordizian Nazional 1 errepedean eta Burgesetik Miranda de Ebrora bitartekoan.
- 1954an etorri zen Elgoibarrera, San Pedroko fabrikara.
- 1955ean, familia guztia osatu zen Elgoibarren. San Pedron lana egin zuen jubilatutako arte eta tarteka, Eizagirre okindegian egiten zituen okin lanak.
- Gizon sufritua, oso familiakoa. Ezaguna herrian eta sinesmeneko pertsona.
- Urrezko eztaiak ere egin zituen.
- Zaletasunen artean, gogoko zuen Pedro Muguruza auzoko "Bar Pepe"n tutean, sustaban etab. ean aritzea, lagunartean.
- C.D. Elgoibarko bazkide eta zaletu amorratua zen, bere 5 semeak bezala.
- 1987ko martxoaren 7an hil zen 78 urte zituela.

**Juanito Gorostiza**

## Nor ote da?

**OHARRA:** 192. zenbakiko "Nor ote da?" lehiaketak ez dauka erantzunik testuaren pretakuntzan izandako akats batzuk direla-eta. Izan ere, bertan azaltzen den testua ez dator bat ustez izkutan zegoen pertsonaiaarekin.

**Karrikizano**  
San Franzisko 12-14 - Tel. 74 05 49

**Arrieta**  
San Bartolome, 18  
Tel. 74 08 49

**PINTAKETA**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN  
San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27  
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZATZEAK - PINTAKETA



Aste honetako erretratua **Bitor Arrietak** laga digu. Izen-abizenak idazteko toki asko xamar beharko dugunez, ez gara azalpenetan gehiegi luzatuko.

Bitorrek esan digunez, erretratua 1932koa da, gaur egun Banco Bilbao dagoen tokian ateratakoa. Orduan ortuak zeuden toki horretan. Mutikoak Aita Agirre plazako eskola publikoetan ikasten zeudenak dira eta Bitorrek gogoan dauka Don Felix zela maisua.

Atzeko ilaran, ezkerretik eskumara: **Pedro Arosa, Jose Zuazubiskar, Mikel Etxeberria (†), Felix Iriondo (†), Jose Agote, Fermin Ruiz de Gauna, Ramon Etxaniz, Enrike Gil, Leoncio Agirrebeña, Sabino Osoro, Basilio Igartua, Angel Azkue (†), Felix Ansola (†)** eta **Sabino Astiazaran (†)**.

Bigarren ilaran, eserita: **Ramon Unzueta (†), Evaristo Iriondo (†), Anacleto Salaberria, Joaquin Oria (†), Jose Arrieta, Manolo Unzilla, Juan Arrese (†), Carlos Unzilla (†), Antonio Iriondo (†), Julian Azkue (†), Mikel Gorostiza, Nicolas Aizpitarte (†), Ilepon Ansola (†)** eta **Roman Garate**.

Hirugarren ilaran, zutik: **Jose M. Gil, Luis M. Zubiaurre, Javier Gurrutxaga, Jose M. Lizundia, Luis Ostolaza, Pedro Ziaran, Eduardo Arriola, Julio Serrano, Ramon Alberdi, Jose M. Kortaberria (†), Fernando Aiesta, Jesus Suarez, Karlos Arrese (†), Jose M. Etxabe, Jose Zabala** eta **Polentzi Osoro**.

Laugarren ilaran, eserita: **Jose M. Mugerza (†), Mateo Peñalba (†), Antonio Regil, Jose M. Gabilondo (†), Jose Azpiazu, Manolo Arregi (†), Juan Martínez (†), Rufino San Martin, Tomas Gabilondo (†), Bitor Arrieta** eta **Alberto Iriondo (†)**.




1996ko maiatzaren 21ean, 83 urte zituela hil zen  
**JOSE OTAEGI IRIZAR**ren omenez  
**URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian,  
 maiatzaren 17an, larunbata, arratsaldeko 7etan.  
 Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.





# “Munduko txapelduna izan nitzan pilotan”



## Jabier Arriola

- **Adina:** 62 urte
- **Izen profesionala:** Arriola IV.a.
- **“Eskuzabala” al zara?** Baietz uste dot.
- **Ospakizun batean falta behar ez dena?** Jateko eta edateko ona.
- **Zer gauzatan bota izan dituzu “pilotak kanpora”?** Dudatan dakat igual profesionalian gehixo sartu eta landu izan banu...

– **Pilotari profesionala izanda-koa zara.** - Bai, baina aurretik afizionatu mailan ibili nitzan. Ni San Lorenzokua naiz eta hasieria hango frontoian ein naban. Gero, Eibarren segitxu eta, poliki-poliki, bost aldiz Gipuzkuako txapelduna izan nitzan, hiru aldiz bakarka eta bitan bikoteka. Espainiako txapeldun beste hiru aldiz atara naban eta behin munduko txapeldun izan nitzan. Horrek danak afizionatua nitzala. Munduko txapelketia irabazi nabanian kontratua ein zien eta profesional hasi nitzan baina gehixo disfrutau naban afizionau modura.

– **Frontoi askotan ibilitakoa zara, ez?** - Bai. Akordatzen naiz urte batian, herriko festetan, julixuan, 29 partidu jokatu genitxun parejetan Tapiana anaxen kontra eta danak frontoi ezberdinetan. Afizionatu moduan nabilen, eta frontoiak bete eitzen zian.

– **Orain ez bezala.** - Nere epokan, astero astero egoten zian partiduak, eguen eta domeka guztietan Eibarren eta eguasten eta zapatuetan Bergaran. Oin askoz gitxio egoten dia eta askotan frotoia ez da betetzen, gainera, telebisuan ere ematen ditxue partiduak.

– **Pilotak eragin handia al du?** - Bai. Batzuetan zuri komeni jatzuna aukeratzen dozu eta beste batzuetan,

kontrarixuari komeni ez jakona. Ondo ezautu bihar da kontrarixuan jokua.

– **Zertan zinen espezialista?** - Igual ez nitzan ezertan oso ona, baina zela danetikan nahiko ondo ibiltzen nitzan... Indarra baino, nerbixua nakan jokatzerakuan eta bakarrik ibiltzen nitzan parejatan baino gusturo.

– **Eta entrenamendu berezirik egiten al zenuten?** - Kanpeonatuak izaten zianian bai, pelotan asko ibili, gimnasia ein, mendira jun...

– **Noren aurka jokatu zenuen?** - Pelotari bat dao ondiok profesional jokatzen nerekin jokaturakua: Retegi II.a. Bi partido jokatu nitxun bere kontra, bat San Bartolomietan eta beste bat Anoetan, Donostian. Bixetan segiduan irabazi zian eta bale. Ni erretiratzen eta bera hasten zauan.

– **Beti esku pilotan, gaur egun palan ibiltzen omen zara.** - Bai. Hasieran palia nesken kirola beixintzen jatan baina oin neretzat nahikua da. Eskuak asko sufritzen dabe eta praktikatzen ez dozunian, gehixo.

– **Arretxe txapeldun, Elkoro txapeldunorde. Konforme emaitzarekin?** - Partidua oso gogorra izan zan. Arretxek oso partidu ona ein zaban eta Elkorok ez zaban hain suerte ona izan. Gustura geratu nitzan. Elkorok aurrerao ere izango dau aukeria.

## KIROL ALBI STEAK

### ● Igandean, mendi itzulia



Goizeko 6,30etan abiatuko dira mendizaleak Plazatik Karakate aldera, 8-9 bat orduko mendi buelta egiteko asmoz. Morkaikoko lehendakariak komentatu digunez, eguraldiaren arabera egongo da jendearen partaidetza. Karakatetik Irukurutzetara, handik Urnobotzara, Altzolara gero, San Migelera segidan, Iruiturra igo, Kalamuako gaina egin eta San Pedrorra bidea hartuko dute mendizaleek, berriz Elgoibarrera jaisteko. Ibilbidean zehar Azkarate eta San Migelen hamarretakoa egiteko postuak jarriko dira. Amaieran, ailegatu ahala, bazkaria izango da mendizaleentzat Merkatu Plaza gaineko lokalean.

## ESKOLARTEKO JOKOAK

| EMAITZAK<br>(Maiatzak 9,<br>22. jardunaldia)   | AGENDA<br>(Maiatzak 17, larunbata)  |
|--|---|
| <b>SASKIBALOA</b><br>■ Benjamin mutilak ■<br>Mendaro A2 8 - Ikas Txut 4<br>Ikas Kirol 0 - Ikas Zirt 18<br>Ikas Marrazo 9 - Pilar Lakasitos 0<br>Mendaro A1 18 - Pilar Flash 4<br>■ Benjamin neskek ■<br>Ikas Zart 6 - Pilar Kas 5<br>Ikas Izurde 6 - Urasandi 14<br>Ikas Izar 22 - Mendaro B | <b>SASKIBALOA</b><br>■ Ben. mut. (Herri Eskolan) ■<br>9:30 Mendaro A1 - Ikas Zirt<br>10:30 Ikas Marrazo - Ikas Txut<br>11:30 Pilar Flash - Pilar Lakasitos<br>12:00 Mendaro A2 - Ikas Kirol<br>■ Ben. nes. (Herri Eskolan) ■<br>10:00 Pilar Usoak - Ikas Izurde<br>11:00 Pilar Izar - Pilar Kas<br>12:30 Mendaro B - Urasandi |

# Bi elgoibartar, Europako eta Espainiako futbol txapeldunak

**Z**uhaitz Gurrutxaga elgoibartarrak Europako futbol selekzioen txapelketan jokatu zuen joan den astean espainiar selekzioarekin. 16 urtez azpiko mailako txapelketa izan zen. Alemanian, Austriako selekzioaren kontrako partiduan 0-0 izan zen emaitza eta, hortaz, penaltien jaurtiketarekin erabaki zen nor izango zen txapelduna. Espainiako selekzioak 5 gol sartzea lortu zuen eta Austriakoak 4. Zuhaitz Gurrutxagak titular modura jokatu zuen partidu osoa, defentsa lanak eginez. Elgoibartarrak Real Sociedad taldeko jubenil taldean jokatzen du gaur egun. Infantiletan ha-



*Zuhaitz Gurrutxaga Europako txapelduna eta Eli Ibarra, Espainiako txapelduna.*

si zen txuri-urdinekin eta dudarik ez dago etorkizun handiko jokalaria dela. Gaur egun 16 urte ditu Zuhaitzek eta azaroan 17 beteko ditu. Bere desiorik handiena Errealeko lehen taldean jokatzea litzateke. Bestetik, Elisabeth Iba-

rrak Espainiako txapelketa jokatu zuen Euskadiko selekzioarekin. Lloret del Mar herrian izan zen finala eta euskaldunak Espainiako txapeldun geratu ziren. Elisabeth Ibarrek Eibarko "Eibartarrak" futbol taldearekin jokatzen du.

## Haundi, play-offerako sailkatua

**I**gandean, hilak 18, Amorebietan jokatuko du Haundik azken partidua. Hala ere, dagoeneko play-offerako sailkatuta dago. Lehen partidua datorren asteburuan, hilak 24 edo 25ean jokatuko da. Play-off delakoa 6 astetan luzatuko da, hortaz, sei partidu jokatuko dira, hauetako 3 Mintxetan. Txapelketa ligila modura jokatuko da, hortaz, irabazle geratzen denak lortuko du 2.B mailara igotzea. Klubeko lehendakariaren esanetan, Haundik aukera handiak dauzka mailaz igotzeko. "Ekipo ona daukagu eta klubak ere badu 2B mailan egoteko behar diren giza baliabideak, bai ekonomikoak".

Mintxetan jokatuko diren play-offeko partiduak ikusteko klubak abono bat atera du, tabernetan eta za-

patuan, hilak 17, eguerdiko 12etan, Plaza Handian salgai egongo dena. Hiru partiduren bazkideen abonoa 1.500 pta.koa izango da eta bazkide ez direnena 2.500 pta.koa.

### Nesken azken partidua

Nesken taldeak azken partidua jokatuko du asteburuan? kontra. 24 neska inguruk osatzen duen eki-

po honek jokatuko duen partiduak berebiziko garrantzia dauka. Irabaziz gero, ligako txapeldun geratzeaz gain, mailaz igotzea ere lortuko lukete, maila territorialetik Liga Nazionalera, hain zuzen. Berdinu edo galduz gero, igoerarako txartela galduko lukete, baina hala eta guztiz ere, ligako txapeldunorde izango lirarteke.



**Haundiak ilusio eta aukera handia du 2Bra igotzeko.**

## EMAITZAK

### Futbola

Elgoibar 8 - Azkuene 1 (**Oho. jub.**)  
**Haundi** 5 - Laudio 0  
 Pedrusko 3 - Beti Sutan 2 (**2. erreg.**)  
 Elgoibar 8 - Anaitasuna 1 (**Kad.**)  
 Urretxu 2 - Elgoibar 1 (**Neskak**)  
 Almen 3 - Elgoibar 5 (**Inf.**)

### Saskibaloia

Elgoibar 54 - Beti Gazte 53

### Eskubaloia

Tecnomeca Elg. 20 - Bergara 16 (**Jub. mut.**)  
 Pagoaga Elg. 18 - Pulpo 18 (**Jub. nes.**)  
 Unceta Elg. 22 - Bergara 11 (**Kad. nes.**)

### Areto futbola

Elgoibar 4 - Araba Etxea 3 (**Auton.**)  
 Elgoibar 6 - C. Extremeño 1 (**1. maila**)

### Tenis Txapelketa

Martin Egea 6/6 - Idaki Retolaza 1/2  
 Luis Anakabe 1/1 - Gorka Merino 6/6

### Pala txapelketa

Rico/De Arriba 35 - Etxeberria/Uriguren 11  
 Gurrutxaga/Bergua 35 - Eizagirre/Azpiazu 26  
 Rico/Aranegi 33 - Urigoitia/De la Mata 33

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

**Larunbata, 17**  
 13:00 Gazteak - San Ignacio (**Jub.**)  
 15:30 Urki - Landetxa (**Erreg.**)  
 17:15 Elgoibar - Gure Txokoa (**Neskak**)  
**Igandea, 18**  
 10:45 Elgoibar - Real Sociedad (**Inf.**)  
 12:30 S.D. Eibar - Villabona (**1. kad.**)  
 17:00 Gazteak - Beti Sutan (**Erreg.**)  
 19:00 Urki - Elgoibar (**2. jub.**)

### Saskibaloia, Kiroldegian

**Larunbata, 17**  
 19:00 Elgoibar - La Salle

### Atletismoa, Mintxetan

**Larunbata, 17**  
 10:30 Gipuzkoako Atletismo Txapelketa

### Pala Txapelketa, Ikastolan

**Larunbata, 17**  
 16:00 Urigoitia/De la Mata - Beneitez/Gabilondo  
 17:00 Etxeberria/Uriguren - Gurrutxaga/Bergua  
 17:30 Rico/De Arriba - Eizagirre/Azpiazu

### Tenis Txapelketa, IMHn

16:00 Gorka Aranegi - Nicolas Berbel  
 17:00 Sabas Boyero - Fernando Rico

### Txirriindularitza, Plaza Handia - Mintxeta

**Igandea, 18**  
 10:00 Gipuzkoako jubenilen txapelketa

## C.D. Elgoibarko himnoari omenaldia egingo zaio igandean, hilak 18

Julio Pérez Cortés elgoibartarraren himnoak  
50 urte betetzen ditu aurten

*1946-47 denboraldiko futbol partiduren batean entzun zen estrainekoz klubaren himnoa. 50 urte pasatu dira ordutik. Hainbeste urte egunero egiten ez direnez, Club Deportivo-ko zuzendaritzak himnoari omenaldia egingo dio, eta bide batez, Elgoibarko Udal Musika bandak ere bai.*

**J**ulio Pérez Cortés konpositore elgoibartarrak egin zuen himnoaren musika. Cortés musika bandaren zuzendaria izan zen urte askoan eta obra asko konposatu zituen bere bizitzan zehar. Himnoaren musikari letra jarri ziona, berriz, beste elgoibartar bat izan zen: Isaac Azpiazu. Elgoibartar hau bandako musikaria zen, saxofoia jotzen zuen.

### Omenaldia

Igandean, hilak 18, Udal Musika Bandak kontzertua emango du Herriko Antzokian. Egitaraua sei obrak osatzen

dute: “Colonel Bogey” (martxa), “Egipshier Match (obertura), “The entertainer” (selektzioa), “En el jardin de un monasterio” (poema sinfonikoa), “Indiana Jones Selection” (fantasia) eta azkenik, Club Deportivo-ko himnoa.

Kontzertuaren atsendaldian, Club Deportivo-ko presidentek, Jose Ramon Zabalak, omenaldi ekitaldiari hasiera emango dio. Batetik, Julio Pérez Cortés-en omenez, plaka bat emango die konpositorearen senitartekoei. Ondoren letra egin zuen senitartekoei jasoko dute beste plaka bat Zabalaren eskutik.

Azkenik, bandari tokatuko zaio txanda. Bai klubeko ardura-dunek, bai bandako kideek ere, elgoibartar guztiak ekitaldira gonbidatu nahi dituzte.

### Himnoaren grabazioa


Kontzertua 12:30etan hasiko da Herriko Antzokian, baina aurretik, atak itxita daudela, himnoaren



Julio Perez Cortes, himnoaren egilea.



Isaac Azpiazu, letraren egilea.



Himnoaren partitura, letra eta guzti.

grabazioa egingo dute. Izan ere, gaur egun Haundiren partiduak hasi aurretik megafoniatik jartzen duten grabazioa kalitate eskasekoa da eta oso aspaldikoa, gainera. Horregatik, Herriko Antzokian grabazio ekipoa onagoenez, grabazio berria egiteko aprobe-txatuko dute okasioa.

Data asko izaten dira gogoangarri eta aurtengo maiatzaren lehen igandea ere hala izan zen.

Jakina da Irukurutzetako erromeria izaten dela urtero maiatzaren lehen igandean, baina aurtengoak bereziki aipatzea merezi zuen. Joan zen asteko BARRENen espero nuen berriaren txipristinen bat behintzat, baina Elgoibarren ez dugu aintzat hartu, Bergaran eta Placentzin arretaz prestatu eta ospatu zutena. Beraz, iraganak hauspean estali baino lehen BARRENeratu nahi ditut gertaeraren oihartzunak.

Esan bezala, Bergarako “Kapirixo” elkarteko hainbat lagunek, 80k zehazki, garbitu dituzte, bi urtetan 1.300 orduz lan eginez, Muskurutzetik Elosu bitartean dauden histori-aurreko hilobiak. Lan horiei errematea emateko ospatu da aurtengo Irukurutzetako erromeria, goizean Pagobedeinkatuko aztarnategian mezarekin hasiz.

Lehen Karakatetik Pol-Polerako bidea erakargarria bazen, orain areago, hilobiak garbi daudelako azalpenez hornitututako panel eta guzti. Saindutegi bat ematen du gainaldean dugun mendikateak eta merezi du, bai, udaberriko opor-tasunean ibilaldi bat egiteak.

Musutruk egiten diren horrelako lanek ez dute askotan esker onik, ez aipamenik jasotzen, baina egia esan, egin dutenek nahiago dute mendiko txangoen esker isila eta egindako lanari iraupena emango dion arreta eta ardurazko tratamendua.

Aranzadik, Egurennek eta Joxemiel Barandiaranek 1921ean indusi zituzten hilibiok eta indusketa horien informea 1922an argitaratu zuten. Inork nahi badu informe hori eskuratu, J.M. Barandiaranen “Obras Completas” VIII. alean dauka, 103-165 orrialdeetan. (Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca).

Ibilaldi on! Merezi du, bai taldeka eta bai bakarka ere.

A. Ugarteburu



# NIK ere AUTO bat nahi dut!

*“Selektibitatea aprobaten baduzu, kotxea gidatzeko baimena oparituko dizut”. Guraso askok erabiltzen duten taktika da honako hau gaur egun. Izan ere, gazteak dira autoeskoletako bezerorik finenak azken urteotan. 18 urte izan behar dira baimena eskuratu ahal izateko.*

**G**aztetan motorra izaten da askoren ilusioa. 14 urterekin, azterketa teoriko bat egin eta, 50 cc.ko motorra gidatzeko lizentzia ater daiteke. 16 urterekin lizentzia bera eskura daiteke baina kasu honetan azterketarik egin gabe. 16 urterekin, baita ere, 75 cc.ko motorra gidatzeko A1 baimena eskura dezakete gazteek eta 18 urtetik aurrera, A2a, era guztietako motorrei dagokiena, baina laster aldatzekotan dena. Izan ere, gaur egun, vespa txiki batekin egiten da azterketa praktikoa, eta gero horrek baimena ematen du beste edozein motor gidatzeko.

Halere, garraioen erreinuan autoa nagusitzen da. B1 gida-baimena lortzea izaten da gazte askoren helburua.

Gaur egun gazteak dira autoeskoletako bezerorik finenak. Arrazoi bategatik edo beste bategatik, ahal bezain pronto saiatzen dira egungo gazteak aipatu baimena eskuratzen: parrandan joateko, unibertsitatera joateko, etorkizunean lan egitera joateko... Berehala aurkitzen ditugu autoaren beharra justifikatzeko arrazoiak.

## 200.000 pta. inguru

Kontua da, kapritxoa edo beharra izan, gidatzeko baimena ateratzea ez dela gauza merkea. Matrikulak 49.000 pta. balio du eta kotxe-praktika ordu bakoitzeko 4.125 pta. ordaindu behar da. Kopuru horiei tasak eta bestelakoak gehitu behar zaizkie. Sekula kotxez ibili ez den ikasle batek 25 ordu behar izaten ditu azterketa praktikorako prest egoteko. Beraz, batzaz beste, 200.000 pta.ko kostua du baimena ateratzeak. Eta hori abilitade handia dugula suposatuz, zorte txarrik ez dugula izan, azterketatzaile bidezkoa tokatu zaigula eta lehenengoan aprobatu dugula. Gazte Txartelak kasu honetan ez du abantaila handirik suposatzen. Izena emateko orduan %10eko deskontua egiten dute, 1.800 pta. gutxiago.

## PREZIOAK

|                                   |       |                           |
|-----------------------------------|-------|---------------------------|
| Matrikula                         | ..... | 49.000 Pta.               |
| <b>Klase praktikoak</b>           |       |                           |
| (orduko)                          | ..... | 4.125 pta.                |
| <b>Azterketa teorikoa</b>         | ..    | 4.130 pta.                |
| <b>Azterketa praktikoa</b>        | ..    | 6.825 pta.                |
| <b>Espedientearen tramitazioa</b> | ..... | 7.700 pta.                |
| <b>Tasak</b>                      | ..... | 12.000 pta.               |
| <b>Guztira:</b>                   |       | 200.000 pta. batzaz beste |

\* Kopuru guztiei BEZa (%16) gehitu behar zaie tasei izan ezik.

## Arantzazu Arrona 18 urte

“Otsailean bete nituen 18 urte eta berehala eman nuen izena autoeskolari. Lehen beti ama ibiltzen zen hara eta hona

kotxez eramaten, eta bada ordua independentzia piskat izateko. Gainera, gidatzea gustatzen zait. Aprobaten dudanean, kotxea erosiko didate gurasoek”.



## Unai Airizmendiarrrieta 18 urte

“Oin dala lau hilabete nao apuntatuta. Teorikoa astuna da, nahikoa ikasi bihar da. Autoarekin ere hasita nao, eta nahiko ondo moldatzen naiz. Kotxia badakat, aitana, eta desiatzen nago karneta ateratzeko, edozein tokitxara juteko trenara edo autobusa hartzia rollo bat dalako”.



## OIERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

(943) 20 35 15 • ABERIAK (943) 20 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR



## MEKANOSA

Errosario 30  
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

INTERESEKO

OSASUNA

Anbulategia:  
 Larrialdiak . . . . . 461111  
 Txanda hartzeko . . . . . 743354  
 Planning-a . . . . . 742950  
 Alkoholiko Anonimoak . . . . . 740385  
 D.Y.A (anbulantzia) . . . . . 464622  
 Gurutze Gorria . . . . . 743864  
 Mendaroko Ospitalea . . . . . 756264  
 Odol Emaileak . . . . . 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . . . . . 740442  
 PESA (Eibar) . . . . . 902 10 12 10  
 Taxi geltokia . . . . . 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua . . . . . 744366  
 Udal Kirol Patronatua . . . . . 744415  
 Kultura Zerbitzua . . . . . 742158  
 Mendaroko Udala . . . . . 756100  
 Ongizate zerbitzua . . . . . 741008  
 Udaletxea . . . . . 741050  
 Udaltzaingoa . . . . . 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . . . . . 741626  
 Kirolegia . . . . . 744415  
 Kontsumo Bulegoa . . . . . 743088  
 Liburutegia . . . . . 743525  
 Musika Eskola . . . . . 742145  
 Mintxeta . . . . . 744315  
 Parrokia . . . . . 740842  
 Postetxea . . . . . 741547

HIRUGAREN ADINA

San Lazaro Egoitza . . . . . 740296  
 Zaharren Biltokia . . . . . 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . . . . . 74 21 41  
 Herri Eskola . . . . . 74 08 79  
 I.M.H. . . . . 74 41 32  
 Herri Institutua  
 Arreiturre . . . . . 74 02 67  
 Ezenarro (Meka) . . . . . 74 44 80  
 Ikastola . . . . . 74 44 41  
 L.H.I. . . . . 74 44 80  
 Pïlar Ikastetxea . . . . . 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN . . . . . 74 41 12  
 El Diario Vasco . . . . . 74 40 73  
 El Correo EspaDol . . . . . 74 10 82  
 Egin . . . . . 10 84 21  
 Zazpiki irratia . . . . . 74 34 74

16 ostirala

20:00 ARGAZKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA  
 Izenburua: "Nire Leihotik"  
 Antolatzailea: Ongarri Argazki Taldea  
 Kultur etxean  
 Ekainaren 15era arte  
 22:15 ZINE KLUBA  
 "Rompiendo las olas"  
 Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba  
 23:00 BLUES KONTZERTUA  
 Taldea: S.E. Soul Band  
 Lanbroa tabernan

17 larunbata  
 19:30-22 15 ZINEA  
 "Jerry Maguire"

18 igandea  
 6:30 ELGOIBARKO MENDI ITZULIA  
 Irteera Plaza Handitik  
 9:00 ARRANTZA TXAPELKETA  
 HAURRENTZAT  
 San Lorentzo errekan  
 Antolatzailea: La Unión  
 12:30 BANDAREN KONTZERTUA eta C.D.KO HIMNOARI OMENALDIA  
 Herriko Antzokian  
 16:00 GIPUZKOAKO

TXIRRINDULARITZA TXAPELKETA  
 Irteera Plaza Handian  
 Helmuga Mintxetan  
 19:30-2215 ZINEA  
 "Jerry Maguire"

19 astelehena  
 19:00 HITZALDIA  
 Gaia: Menopausia  
 Hizlaria: Ana Gómez sendagilea  
 Kultur Etxean  
 Antolatzaileak: Haizea E.T. eta Udal Ongizate Saila  
 22:15 ZINEA  
 "Jerry Maguire"


20 asteartea  
 20:00 DIAPORAMA  
 "Ojarte" (Kepa González)  
 "Elgoibarko Ondare Historiko-artistikoa" (Pello Arrieta)  
 Herriko Antzokian

21 asteazkena  
 17:00 DIAPOSITIBA EMANALDIA  
 Gaia: Aljeria  
 Kultur Etxean  
 Antolatzailea: Udal Euskaltegia  
 19:30 KONTZERTUA  
 Musikeskolako ikasleena  
 Herriko Antzokian

22 osteguna  
 19:30 KONTZERTUA  
 Musikeskolako ikasleena  
 Herriko Antzokian  
 22:25 ZINE KLUBA  
 "La promesa"  
 Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

23 ostirala  
 19:30 HITZALDIA  
 Gaia: ELA-LAB  
 Hizlaria: ELAko German Kortaberria  
 Kultur Etxean  
 Antolatzailea: Kimetz Elkartea  
 22:15 ZINEA  
 "Los demonios de la noche"

ZIN



Zuzendaria: Cameron Crowe  
 Antzezleak: Tom Cruise, Kelly Preston, Cuba Gooding Jr.

Jerry Maguire

Kirol munduan lan egiten duen manager batek, bizitzan arrakasta izateko behar den guztia dauka. Lanean eskrupulu gutxiagorekin lan egitearen aldeko printzipioen deklarazio bat idazten du eta berehala, kalera botako dute. Negozioen munduan berriz hutsetik hasi beharko du. Une latz hauetan bere emaztearen eta bigarren mailako futbolari baten laguntza izango du.



## Festa das Letras Galegas

### OSTIRALA, 16

**19:00** Txafliagu jaurtiketa Jarraian, "Salsabanda" taldearen saioa

**22:30** "Salsabanda"rekin berbena Herri Eskolan

### LARUNBATA, 17

**10:30** Ourenseko "Foula" taldearekin kalejira

**11:00** Galiziako jakien dastaketa

**12:00** "Foula" taldearen ekitaldia Herri Eskolan

**16:30** Haurrentzako jolasak sariekin

**18:00** Galiziako jakien dastaketa

**19:00** "Salsabanda"ren jarduna

**22:30** "Salsabanda"rekin berbena eta "Sito Mariño" ezagunaren saioa

### IGANDEA, 18

**9:45** Txafliagu jaurtiketa

**10:00** Meza galizieraz, parrokiari

**10:15** "Foula" taldeari harrera Haritz dantza taldea eta Udal Txistularirekin Plaza Handian

**11:30** "Foula" eta Haritz dantza taldearen ekitaldia Plaza Handian

**17:00** "Foula" taldearen agurra Galiza plazan

**19:30** Jaien amaiera txafliaguen jaurtiketarekin

## ● Ongarriren erakusketaren inaugurazioa

Ongarri Argazki Taldeak, Valenciako Railowsky galeriaren laguntzaz, "Nire leihotik" izenburupeko erakusketa antolatu du gaurtik hasita, hilak 16, ekainaren 14ra bitartean. Kultur Etxean kokatuko den erakusketak 28 argazkilariren lanak biltzen ditu, argazki munduarekin lotutako zazpi pertsona ezberdinek hautatutakoak. Arratsaldeko 8etan erakusketaren inaugurazioa izango da Kultur Etxean. Jarraian mahaingurua hasiko da argazkilaria, editore eta erakusketako komisarioen partaidetzarekin.

## ● Amabirjinaren hilabetea Pilar ikastetxean

Maiatz osoan zehar, Pilar ikastetxeak Amabirjinari eskainitako hilabetea ospatzen du. Ikastetxean duten Amabirjinaren irudia lorez apaintzen dute eta otoi-tzak eta okerkiak abesten dizkiote. Hilaren 23an, ostirala, 1. mailatik 5. mailara bitarteko 125 bat haur San Bartolome elizara joango dira lore-eskaintza egitera eta bertan, olerkiak abestuko dizkiote Amabirjinari.



azkue

## ● Zuzendaritzaren garapena eta berrikuntza aztergai

Atzo, hilak 15, Erreminta Makinaren Institutuan izan zen enpresa etikari buruzko jardunaldiak hil honen 28an eta 29an izango du jarraipena, "kalitate pertsonala: etengabeko hobekuntza banaka zein taldean" gaiaren inguruan. Eugenio Ibarzabal, "Iceberg Perspectiva"ren fundatzailea eta komunikazioan aditua, izango da gaiari buruz jardungo duena. Gestio Eskolak, IMHK eta SPRI erakundeek antolatuta, zuzendaritzaren garapena eta berrikuntza dute helburu jardunaldiok. Azken jardunaldia, hilaren 29an izango da eta uda ostean, tando bati berri ekiteko asmoa dute antolatzaileek.

## ● Herriko I. arrantza txapelketa haurrentzat

La Unión Arrantza eta Ehiza elkarteak haurrei zuzendutako arrantza txapelketaren lehen edizioa antolatu du. San Lorentzo errekan izango da lehiaketa, hilaren 18an, igandea, goizeko 9etatik ordu bata bitartean. Beharrezkoa izango da arrantza baime-na edukitzea. 14 urtetik beherakoek soilik hartu ahal izango dute parte, izen-ematea dohainik izanik. Irabazleak trofeo eta opariak jasoko ditu eta bigarrenak eta hirugarrenak trofeoak.

## ● Kontzertuak Lanbroa tabernan

Gaur, hilak 16, ostirala, soul kontzertua egongo da Lanbroa tabernan S.E. Soul Band taldearen eskutik. Saioa gaueko 11etan hasiko da. Datorren ostira-lean, hilak 27, beste kontzertu bat emango du C.U. Rock&Blues taldeak, gaueko 11etan hau ere.

## TXAN- DAK

### FARMAZIAK

|    | Egunez     | Gauetz     |
|----|------------|------------|
| 17 | Etxeberría | Etxeberría |
| 18 | Etxeberría | Etxeberría |
| 19 | Ormazabal  | Ormazabal  |
| 20 | Yudego     | Anduaga    |
| 21 | Ormazabal  | Zabaleta   |
| 22 | Etxeberría | Etxeberría |
| 23 | Ormazabal  | Escala     |

**Zabaleta:** Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

**Escala:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38

**Anduaga:** Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42

### OKINDEGIA

18 igandea Idarraga

## ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Luc eta Jean-Pierre Dardenne

## La promesa (Belgika, 1996)

Valladolid-eko jaialdian urrezko garaikurra eta Fipresci sariak jaso zituen. Belgikako inmigrazioaren esplotazioari buruzko pelikula hunkigarria da. Aita- seme batek inmigranteekin egiten duten negozioa kontatzen du. Langile beltz batek istripua izaten du eta aita-semearen arteko harremana apurtzeaz gain, negozioaren etorkizuna ere arriskuan geratzen da.

## Salerosketak

### ◆ SALDU ◆

- ◆ Bi sofa, hirukoa eta bikoa, Phillips telebista eta bideoa, orain dela urte t'erdikoa eta mountain bike bat (10.000 pta.) salgai. Prezio interesgarriak. ☎ **74 22 78** (Gauzez)
- ◆ Poliesterrezko Yamaha itsasuntzia salgai. 4 zaldiko motorra. 4,50ko luzera eta 1,50ko manga. ☎ **19 13 07**
- ◆ Opel Kadet diesel saltzen dut. 150.000 pta. Tel: ☎ **74 23 67**
- ◆ Ambra 186 ordenagailua. DX2 modelua, 66 MHz, disko gogorra 243 mega, RAM 8 mega, 14 pulgatako ambra monitora koloretan, teklatura eta arratoia 50.000 pta.n saltzen dut. ☎ **12 71 92** (M. Eugenia)
- ◆ Mendaroko Irrintzi liburudenda traspasatzen dut. ☎ **75 61 53**
- ◆ 1'40x2'00 m-ko sofa-oheta salgai. Estreinatua gabe. Prezio erdian. ☎ **19 25 91** (Javier)
- ◆ Logela baterako altzariak salgai: ohea, mesanotxea, hiru ateko armairua, eskritorioa eta estanteriak. Berriak ☎ **74 12 85**

- ◆ **EROSI** ◆
- ◆ Land Rover motza erosiko nuke. ☎ **74 41 77** (20:00-21:00)
- ◆ Keroseno estufa erosiko nuke. ☎ **74 04 59** (gauzez)

## Lana

### ◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Neska bat behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Esperientzia eta euskaraz jakitea beharrezkoa da. ☎ **74 40 84**
- ◆ Sukaldaria behar da. ☎ **70 06 02 / 906 15 74 03** (Guillermo)

### ◆ ESKAERA ◆

- ◆ Klinikak eta psikiatria auxiliarrak gaixoak edo pertsona nagusiak zainduko litzuzke. ☎ **74 05 45**
- ◆ Klinikak laguntzaileak gaixoak edo pertsona nagusiak zainduko litzuzke. ☎ **74 03 98**
- ◆ Neska gazte batek haurrak zaindu edo propaganda banatuko luke. ☎ **74 04 56**.
- ◆ Gaixoak zaindu, etxea zaindu, enpapelatu lanak, sukaldekoak etab. egiteko prest nago. Carmen Jorquera. ☎ **75 62 57**
- ◆ Edozein lan mota egiteko prest nago. (Umeak, nagusiak zaindu). ☎ **75 26 75** Mari Karmen
- ◆ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat dependienta bezala. ☎ **74 22 78**

## Etxebizitzak

- ◆ 3 logela eta amoblatura dagoen etxe bat alokatu nahi da, irailetik aurrera. ☎ **72 20 02** (Ainhoa. Asteburuetan deitu)
- ◆ Pisuak salgai Pedro Muguruzan. ☎ **74 04 56** (Maria)
- ◆ Etxea saltzen dut Santa Ana 10-4n. ☎ **75 62 34**
- ◆ Pisu bat alokatuko nuke Elgoibarren uztaile eta abuztuan. ☎ **74 31 69** (Pepi)
- ◆ Maiatzetik irailera bitartean etxea alokatzen dut Jakan. ☎ **74 15 22**
- ◆ Donostian (Paseo Rondon) pisu bat alokatzeko daukat. ☎ **74 18 34**
- ◆ Ekainetik aurrera apartamentu bat alokatzen da Benidormen Levanteko hondartzako lehen ilaran. Garbigailua, TB, igerilekua, parking-a. ☎ **74 20 31**
- ◆ Udan, uztailean izan ezik, Santa Polan (Alicante) bungalow-a alogeran ☎ **74 12 13** Carmen (Gauzez)

## Bestelakoak

- ◆ Elgoibarko folk taldeak en-tsaizatzeko lokal bat alokatuko luke. ☎ **74 14 62** (Gauzez deitu. Alvaro)
- ◆ Husky siberiano eme bat ematen dut. Zuri-beltza, 8 hilabete ditu, lokua zuziak jarrita eta papeteoa egina. ☎ **987-91 57 17** (Asier)
- ◆ Eskjak (33 zenbakia) eta bastoiak oparitzen ditut. ☎ **74 34 24** (Milla)
- ◆ WG autoko giltzak topatu nituen Arnoetan eta Udaltzaingora eraman nituen.
- ◆ DBHko ikasleak pirata jantziak eta tresnak behar ditugu antzezlan baterako. Estreinaldia aurki da eta lehenbizikoen behar ditugu. Instrukzio emanaz zuek jantziak datu pertsonalatu batera. Gu arduratuko gara itzultzeaz. Eskerrik asko.
- ◆ Paper batean bilduta dirua aurkitu dut merkatu plazan. Galdit duenak deitu ☎ **74 35 05** (Gauzez)
- ◆ Egunero Bilbora goizean goiz kotxez doan nagaitzean pan eta gastuak konpartituko nituzke. ☎ **74 08 58** Maitane
- ◆ Alemanian au-pair bat hartuko luke familia jator batek. ☎ **74 39 65**
- ◆ Joan den larunbatean hilak 12 Arregitorreko plazaxan unean horra polar bat galdit zen. Aurkitu baduzu deitu. ☎ **74 12 31**
- ◆ Bataiorako mantoia eta armario bat behar du Cari-

## Partikularrak

- ◆ LOGSE batxillegoko marrazketa eta arkitektura eta injinerutza hasterko oinarritzko marrazketa eman-got ditut uztailean. ☎ **74 03 74**
- ◆ Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak. ☎ **74 09 72** Garikoitz
- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ **74 21 65** Javi

## Garajeak


- ◆ Urasandin garajea dut alokatzeko. Marraduna. ☎ **74 31 07**
- ◆ Garajea salgai Juan Mugerza kalean. ☎ **74 12 04** (20:00-22:00)
- ◆ Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren. ☎ **74 12 53**
- ◆ Garaje bat salgai Leku-Ederreko 4. solairuan. (9etatik 13etara) ☎ **74 32 04**
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut Arregitorren. ☎ **74 34 10**

## Agurrak

- ◆ Gaur, hilak 16, urteak egin dituen **Angel Arenali**, zorionak familiaren partetik. Askoz gehiago betetzeara opa dizugu eta oparia gogoko izatea.



- ◆ Zorionak Asier Gurrutzaga Suarez, asteazkenean, hilak 14, 4 urte bete zituelako, gurasoen partez.



- ◆ Zorionak Felix eta Catyri, euren seme Puri, Marti eta Inakiren partez.



- ◆ Hodei López Castrillejori eta Enara Castrillejo Tavirari zorionak 5 eta 3 urte betetzen dituztelako hilaren 18an eta 21ean. Guraso, aiton-amon eta osaba-izebak.



- ◆ Eulalio Ortega zorionak hilaren 19an 37 urte bete-ko dituelako. M. Jesus, Ander eta Pedronen partez.



- ◆ Zorionak Joana Astigarragari maiatzaren 12an 12 urte bete zituelako. 6. mailako partez.



- ◆ Zorionak Cristina Conderi igandean Lehen Jaunartzea egingo duelako. Egun zorionsua opa dizue guraso eta ahizpak. Osaba eta lehengusu-lehengusinen partez musu handi bat!



## Agurrak

- ◆ Hilaren 20an 5 urte beteko dituen **Maria Hernandezi** zorionak familiaren partez.



- ◆ Zorionak Osel Sanchez gaur, hilak 16, 10 urte bete zituelako. Nerean partez.



- ◆ Sandra Toledanori zorionak maiatzaren 6an 18 urte bete zituelako. Kuadrilakoan eta Nerea Villaren partez.

- ◆ Aste honetan 9 urte betetzen dituzten Ainhoa eta Eiderri, zorionak Danelen partez.

- ◆ Zorionak Ainara Sanchez hilaren 15ean 18 urte egin zituelako, familia osoaren partez.

- ◆ Zorionak M. Carmen Goikoeaxeari, Judith Astigarragari eta Ioanari, hilaren 17an, 10ean eta 12an urteak bete zituztelako. Zuen familiaren partez. Zorionak!!!

- ◆ Zorionak Andoni Gabilondori maiatzaren 21ean eta Ion Sanchez maiatzaren 18an urteak beteko dituztelako. Ikastolako 4. mailako partez.

- ◆ Igandean I. Jaunartzea egingo duen Ander Polori zorionak familiaren partez.

- ◆ Ane Odrinari zorionak familiaren partez maiatzaren 11n Jaunartzea egin zuelako.

- ◆ Zorionak Oier Oñederrari hilaren 14an urteak egin zituelako Ikastolako 5. mailako 4 nesken partez.

- ◆ Superultramegaplus zorionak Eider Pérezi hilaren 13an 9 urte bete zituelako. Ainhoa eta Aneren partez.

- ◆ Spice Girls-en sketcha egin zuten Sara Pérez, Maitane Huidobro, Izaskun Esnaola, Maitane Díez eta Mireia de Castrok eskerrik eman nahi dizkiete Pilarreko 1. mailakoei eurei botoa ematearren.

- ◆ Zorionak Aitor Arrillagari hilaren 11n lehenengo Jaunartzea egin zuelako. Familiaren partez.

- ◆ Zorionak Eduri, hilaren 17an 20 urte beteko dituelako. M. Carmenen partez.

# MEDIKUNTZA eta KIRURGIA KONTSULTATEGIA ANALISIEN LABORATEGIA

- Metabolismoak eta elikadurak eragindako gora-beherak.
- Haur eta gaztetxoek hazkundera eta koskortzea.
- Gizentasuna. Medikuntza estetikoa.

Cesar G. de Martino  
3.500.SS Mediku kolegiatua  
Elena Rodriguez Atxurra

Egiguren kalea, BILBO Tel. 20 60

## DIA DAS LETRAS GALEGAS




**GALIZA ETXKO  
ZUZENDARITZAK JAI  
HAUETAN PARTE  
HARTZEKO GONBITEA  
LUZATU NAHI DIZUE  
ELGOIBARTAR GUZTIOI**

**OSTIRALA, 16**  
19:00 Txafliu jaurtiketa  
Jarraian, "Salsabanda" taldearen saioa  
22:30 "Salsabanda" rekin berbena Herri Eskolan

**LARUNBATA, 17**  
10:30 Ourenseko "Foula" taldearekin kalejira  
11:00 Galiziako jakien dastaketa  
12:00 "Foula" taldearen ekitaldia  
Herri Eskolan  
16:30 Haurrentzako jolasak sariekin  
18:00 Galiziako jakien dastaketa  
19:00 "Salsabanda" ren jarduna  
22:30 "Salsabanda" rekin berbena eta  
"Sito Mariño" ezagunaren saioa

**IGANDEA, 18**  
9:45 Txafliu jaurtiketa  
10:00 Meza galizieraz, parrokiari  
10:15 "Foula" taldeari harrera Haritz Dantza  
Taldea eta Udal Txistulariekin Plaza Handian  
11:30 "Foula" eta Haritz Dantza Taldearen  
ekitaldia Plaza Handian  
17:00 "Foula" taldearen agurra Galiza Plazan  
19:30 Jaien amaiera txafliuen jaurtiketarekin

# COUPE



*Kalitatearen eta prezioaren arteko erlaziorik onena*

HYUNDAI COUPE BERRIA 2.645.000 pta.



**HYUNDAI**

**MENDARO AUTOAK**

---

DONOSTIA

Zumalakarregi, 1  
Tel. 31 22 00

---

ELGOIBAR

Olaso, 27  
Tel. 74 32 00

---

EIBAR

Otaola, 27  
Tel. 70 13 82

**GIPUZKOARAKO BANATZAILE OFIZIALAK**